



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

**UDALBATZARRAK 2020ko UZTAILAREN 28an EGINDAKO OHIKO
BILKURAREN AKTA**

2020ko uztailaren 28an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Koldobika Jauregi Zinkunegi Alkateordearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEORDEA : Koldobika Jauregi Zinkunegi

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Unai Sorarrain Urruzola
Concepcion Soria Legua
Gillermo Jesus Otegi Zubillaga

Bere ezin etorria azaltzen du: Shrabani Aranzabe Pita

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

- 1. Aurreko bilkurako aktan onespena.**
✓ 2020ko maiatzaren 26an egindako ohiko bilkuraren akta.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. J.D.J. jaunak eginiko eskaeraren onespena, hala bada**
- 5. Udal garbitzailearen oporrak egiteko ordezkapenaren onespena, hala bada.**
- 6. Kirol batzordeak 2019 urtean jasotako diru-laguntzaren kitapenaren onespena, hala bada.**
- 7. Kirol batzordeak 2020 urteari dagokion diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 8. Aiztondo zerbitzuen mankomunitateari 2020ko 3. Eta 4. Hiruhilabeteari dagokion ekarpena burutzea, hala bada.**
- 9. Beste batzuk.**
- 10. Mozioak, erreguak eta galderak.**

.../...



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHEN PUNTUA
AURREKO BILKURAKO AKTAN ONESPENA

- 2020ko maiatzaren 26ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA
ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 76/2020tik 110/2020ra bitarteko Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARREN PUNTUA
FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

TOLOMENDI	880,35
MOVISTAR	56,37
MOVISTAR	180,62
ICETEC	121,00
EUSKALTEL	151,42
EBA ERKIZIA	1.605,05
IBERDROLA	24,12
GOIENER	73,63
GOIENER	65,38
GOIENER	256,86
GOIENER	63,19
PLASTICOS TECNICOS Y DERIVADOS	683,65
MAQUELSA	6,62
ULAHÍ	578,33
ARGITU	226,84
DIONISIO ORMAZABAL	94,59
BASABI	265,00
CORREOS	28,69



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ACSOL	288,28
ACSOL	62,10
ACSOL	36,86
ACSOL	38,34
ACSOL	22,72
ACSOL	41,12
ACSOL	56,31
SOLRED	57,76
CARPINTERIA ATARI	43,56
SOS FIRE	263,72
KEY-LAN	2,25
RECAMBIOS IBARRA	4,07
SEIKIN	206,91
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	305,65
OTIS	433,60
IZARRAITZPE LOREZAINZA	1.815,00
DRUCK	127,05
BELAKO	30,00
GRENKE RENT	127,49
NORTEGAS	8,34
FONTANERIA ANTZIETA	2.559,15
ZUMARPE KUDEAKETAK	19.965,00

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **31.856,99** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

J.D.J. JAUNAK EGINIKO ESKAERAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik J.D.J. jaunak eginiko eskaera, non dioen AEK euskaltegian 2019/2020 ikasturtean, euskarako ikastaro bat egin duela, B1. euskara eskakizuna ateratzeko. Ikastaroaren kostua 348,00 eurotako izanik, aipaturiko ikastaroa egiteko Alkizako Udalarari dirulaguntza eskaera egiten dio.

Ikusirik Alkizako Udalak herritarren euskaratze prozesua bultzatu nahi duela.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, bertaratuak gehiengoz, Concepción Soria zinegotziaren abstentzioarekin 40/2015 Legeak 23. artikulua xedatutako kasu batean aurkitzen delako, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- J.D.J. jaunak eginiko diru-laguntza eskaera onestea, euskara ikastaroa egiteko, hau da, AEK e-euskaltegian egin duen euskara ikastarorako 348,00 eurotako diru-laguntza ematea. Asistentzi ziurtagiria aurkeztu duenez, ordainketa osoa burutzea onesten da, 480.335.00.01 kontu sailen kontura.

HIRUGARRENA: Erabaki hauen berri J.D.J. jaunari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

UDAL GARBITZAILEAREN OPORRAK EGITEKO ORDEZKAPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik, 2019ko abenduaren 26an egindako Udalbatzarrean, Alkizako udaletxeko garbitzailearen ordezkapenak egiteko lan poltsa bat osatu zela.

Ikusirik Alkizako udaleko garbitzaileak abuztuaren 1etik 31ra oporrak dituela.

Ikusirik, aipaturiko lan poltsa horretatik lehentasuna dutela langabezian daudenak.

Ikusirik, aipaturiko lan poltsa horretan daudenei dei egin zaiela zeintzuk dauden langabezian eta ordezkapen hau egiteko interesa duten ziurtatzeko, bakarra agertu delarik, hain zuzen, J.G. andrea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako udaletxeko garbitzailearen oporrakdirako ordezkapena egiteko, 2019ko abenduaren 26an Udalbatzarrak onestutako lan poltsa erabiltzeko baimena ematea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BIGARRENA: J.G. andreari lan harremaneko kontratua egitea, abuztuaren 3tik 31ra bitartean, udaletxeko garbitzaile moduan dagozkion lanak egin ditzan. Astean 10,30ko ordutako jardunaldi batekin.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

KIROL BATZORDEAK 2019 URTEAN JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako Udalak, 2019 urtean Kirol Batzordeari 2.500,00 eurotako diru-laguntza eman ziola.

Ikusirik Kirol Batzordeak, Alkizako Udalean aurkeztu dituela, 2019. Urteari dagokion gastuen kitapena, ondorengoa izanik:

2019KO GASTUEN KITAPENA KIROL BATZORDEA

- SAN ISIDRO

Frontenis Txapelketa	
Trofeoak+ txapelak	572,25€
Pelotak frontenis	123,81€
Finalerako nikiak	29,94 €
Ginkana	131,95 €
GUZTIRA	857,95€

- HERRIKO FESTAK

Pelota Txapelketa:	
Finalerako nikiak	38,95 €
Trofeoak+ txapelak	590,30 €
Sariak	112,11
GUZTIRA	741,36 €

- SAN MARTIN

Lau terdiko Txapelketa:	420,00€
-------------------------	---------



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

txapela+trofeoak	
Txikien pelotak	184,00€
GUZTIRA	604,00€

- **SAN SILVESTRE LASTERKETA: 629,40€ (TROFEOAK)**

GASTUAK: Guztira 2.832,71 €

SARRERAK: Udaletxea 2.500,00€
Frontenis txapelketa 250,00€
Pelota txpelketa 105,00 €

SARRERAK GUZTIRA : 2.855,00€

Geratzen zaigun dirua:	22,29€
-------------------------------	---------------

Gaia aztertutrik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA.- Kirol Batzordeak, aurkezturiko 2019 urteari dagokion gastuen kitapena onestea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

KIROL BATZORDEAK 2020 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako Kirol Batzordeak eginiko eskaera, non azaltzen duten 2020 urterako prestatu nahi dituzten ekintzak burutu ahal izateko 1.000,00 euroko laguntza ekonomikoa behar dutela.

Ikusirik 2020 urteko aurrekontuetan, Alkizako Kirol Batzordeari esleitzeko 2.500,00 eurotako partida bat dagoela, 481.340.00.01 kontu saila alegia.

Ikusirik 2020 urterako Alkizako Udalaren aurrekontuan partida nahikoa aurreikusi dela.

Gaia aztertutrik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENA: Alkizako Kirol Batzordeari 1.000,00.- eurotako diru-laguntza ematea, 2020 urtean prestatu nahi dituzten ekintzak burutu ahal izateko, udal aurrekontuetako 481.340.00.01 partidaren kargura.

BIGARRENA: 1.000,00.- eurotako gastua onartzea.

HIRUGARRENA: Alkizako Kirol Batzordeari jakinaraztea, urte bukaeran, urtean zehar eginiko ekintzei buruzko gastuen kitapena aurkeztu beharko dutela.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Alkizako Kirol Batzordeari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2020ko 3. ETA 4. HIRUHILABETEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2020 ekitaldiko 3. eta 4. hiruhilabeteetan sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Alkizako Udalak burutu beharreko ekarpena 7.000,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, Alkizako udalak eskatuta, ondoren zehazten den moduan banatzen da:

-Gizarte zerbitzuak: 7.000,00 euro

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 7.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2020 ekitaldiko 3. eta 4. hiruhilabeteetan sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko udal aurrekontuetako "421.230.00.01" kontu sailaren kargura. Kontzeptu hauetan banatuta:

-Gizarte zerbitzuak: 7.000,00 euro

BIGARRENA.- 7.000,00 eurotako gastua onartzea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.

9.1. TOLOSALDEA GARATZEN-i 2020 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEKO ESKAERA ONESTEA, HALA BADA

Ikusirik 2020ko uztailaren 23ko dataz, Tolosaldea Garatzen-ek aurkezturiko idatzia, non Alkizako Udalarari 2020 urteari dagokion ekarpena 5.629,00 eurotako dela jakitera ematen du, lehenengo ekarpena, 2.760,00 eurotako eta bigarrenengo ekarpena irailaren 30erako egin behar dena 2.870,00 eurotako.

Ikusirik 2020ko Udal aurrekontuetako 422.943.02.01 partidaren aurrekontu nahikoa aurrikusten dela gastu honi aurre egiteko.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratuek

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Tolosaldea Garatzen-i 2020 urteko ekitaldiari dagokion ekarpena onestea eta burutzea, 5.629,00 eurotako delarik.

BIGARRENA.- Gastua 2020 urteko udal aurrekontuko 422.943.02.01 partidaren kargura egitea.

9.2.LARRAULGO UDALAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Larraulgo Udalak eginiko eskaera, non azaltzen duten abuztuaren 3an San Esteban eguna dela eta bertso saio bat antolatu dutela, horretarako 100 aulki uzteko baimena eskaera egiten du.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udalarari 100 auki uztea, Larraulen, abuztuaren 3an egin behar den bertso saiorako. Aulkiak hartzeko Udal langilearekin harremanetan jarri beharko direlarik.

BIGARRENA: Larraulgo Udalarari jakinarazi, aulkiak jasotako egoeran



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

itzuli beharko dituela eta hauek hautsiz gero, berriak ekarri beharko dituela.

HIRUGARRENA: Ebazpen honen berri Larraulgo udalari ematea.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakariorde Jaunak bilkura 20.15 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.

IDAZKARIAK